**PLT-C-2025-0009**
**GP/gnf**

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

# N-634 ERREPIDEA ERROTABERRI POLIGONOAREKIN ASTIN BARRENA LOTZEKO PROIEKTU BERRIKUSIAREN (ZARAUZKO SAIHESBIDEAREN ZATIA) OBREN ZUZENDARITZARI INGURUMEN-LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZU KONTRATUA

## (Gakoa: 1-V-64/2021-RP-SA)

ACTA88e477d7-f656-4eb2-9b8a-05abc89dab46

**PLT-C-2025-0009**
**GP/gnf**

**N-634 ERREPIDEA ERROTABERRI POLIGONOAREKIN ASTIN BARRENA LOTZEKO PROIEKTU BERRIKUSIAREN (ZARAUZKO SAIHESBIDEAREN ZATIA) OBREN ZUZENDARITZARI INGURUMEN-LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZU KONTRATUA**

(Gakoa: 1-V-64/2021-RP-SA)

AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN PRESKRIPZIO OROKORRAK ETA XEDEA ..... 3
2. AURREKARIAK ..... 3
3. AHOLKULARITZA ENPRESAK EGIN BEHARREKO LANAK ..... 3
4. LANEN ZUZENDARITZA ..... 4
5. KONTRATUAREN EPEA ..... 4
6. KONTRATUAREN PREZIOA ..... 4
7. JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA ..... 4
8. LANEN ORDAINKETA ..... 5

ACTA88e477d7-f656-4eb2-9b8a-05abc89dab46

## 1. KONTRATUAREN PRESKRIPZIO OROKORRAK ETA XEDEA

Plegu honen xedea da jarraian aipatzen den proiektuaren obren zuzendaritzari ingurumen laguntza teknikoko zerbitzuak emateko oinarri gisa hartuko dituen lanak deskribatzea eta baldintzak eta irizpide teknikoak definitzea: "N-634 errepidea Errotaberri poligonoarekin Astin barrena lotzeko proiektu berrikusia, Zarauzko saihesbidearen zatia".

Kontratatzen den lana, beraz, laguntza tekniko espezializatuko zerbitzua da, eta aipatutako obrak egiten diren bitartean eman beharko da.

## 2. AURREKARIAK

2023ko maiatzaren 26an, Ingurumeneko zuzendari nagusiak proiektu honen ingurumen inpaktuaren txostena egin zuen (2023ko ekainaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 107. zk.): N-634 errepidea Errotaberri poligonoarekin Astin barrena lotzeko proiektu berrikusia, Zarauzko saihesbidearen zatia (1-V-64/2021).

Txosten horretan ondorioztatzen zen proiektuak ez zuela eragin kaltegarri nabarmenik izango ingurumen elementuetan, baldin eta proiektuaren sustatzaileak bermatzen bazuen ingurumen inpaktuari buruzko txostenaren bigarren atalean ezarritako zehaztapenak benetan txertatzen eta betetzen zirela. Gainera, ezarri zen proiektua onartu aurretik bidali behar zitzaiola behin betiko proiektua Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari, baldintza eta zehaztapen horiek ezartzearen ondoriozko aldaketekin.

Ondorioz, 2024ko azaroaren 6an, jarraian aipatzen den proiektua aurkeztu zen eta Ingurumen Administrazioko zuzendari nagusiak aldeko txostena eman zuen: "N-634 errepidea Errotaberri poligonoarekin Astin barrena lotzeko proiektu berrikusia, Zarauzko saihesbidearen zatia (1-V-64/2021-RP)".

Obra kontratua adjudikazio fasean dago, eta 2025eko maiatz-ekainean hastea aurreikusten da, 18 hilabeteko guztizko egikaritze epearekin.

Proiektua esteka honetan deskargatu daiteke:

**http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DWIBideAzpiegiturakWEB/proy.do?cP=1-V-64/2021&cS=RP**

## 3. AHOLKULARITZA ENPRESAK EGIN BEHARREKO LANAK

Aholkularitza enpresak Obra Zuzendaritzari ingurumen aholkularitza eman beharko dio, eta kontrolatuko du obrak egoki burutzen direla ingurumenaren gaineko ondorioei dagokienez. Horretarako, obran bertan behar diren langile espezialistak izan beharko ditu, lanen garapenaren arabera beharrezkoak diren presentziarekin eta dedikazioarekin.

Zehazki, lan hauek egin beharko ditu:

Enpresa kontratistak garatutako lanen Ingurumena Zaintzeko Programa gainbegiratzea eta horren berri ematea, proiektuaren ingurumen inpaktuaren txostena eta ingurumen azterketa betez.

Tokian bertan kontrolatzea ingurumena zaintzeko programa horren eta obrak egitean beharrezkoak diren prebentzio eta zuzenketa neurrien betetze maila.

Obrak egin ahala sortzen diren gorabeherei erantzuteko beharrezkoak diren prebentzio eta zuzenketa neurriak definitzea eta horien berri ematea.

Obren ingurumen garapenari buruzko hileko txostenak egitea, ingurumena zaintzeko programaren eta bertan ezarritako prebentzio eta zuzenketa neurrien betetze maila zehaztuz, eta obrak egin bitartean sortutako gorabeherak, ingurumen inplikazioak eta inpaktua arintzeko ezarritako prebentzio eta zuzenketa neurriak zehaztuz.

ACTA88e477d7-f656-4eb2-9b8a-05abc89dab46

Obren azken txostena idaztea, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusira bidaltzeko. Txosten horretan behar bezala dokumentatuko dira gertatu diren gorabehera, analisi, emaitza eta konponbide garrantzitsuenak, eta, hala badagokio, proiektua gauzatu bitartean sartu diren aldaketa puntualak zehaztuko dira, ingurumenean duten eraginaren ikuspegitik justifikatuta.

Lanen irismenetik kanpo geratzen dira Hondakinak Kudeatzeko Planaren jarraipena eta proiektuaren eraginpean dagoen eta kutsatuta egon daitekeen lurzatiaren indusketaren jarraipena.

## 4. LANEN ZUZENDARITZA

Obren zuzendaritza Bide Azpiegituretako Departamentuko pertsonal teknikoak osatuko du. Zuzendaritza horrek ezarriko ditu aholkulariaren irizpide eta jarduera ildoak; horrek, lanak garatzeko unean, baldintza agiri honetan eta kontratua osatzen duten bestelako dokumentuetan ezarritakoaren arabera jardun beharko du, eta bere gain izango du erantzukizun tekniko eta legal guztia.

## 5. KONTRATUAREN EPEA

Kontratua egikaritzeko epea obrak egiteko epearen berdina izango da, eta beste hilabete bat luzatuko da azken txostena idazteko lanak amaitu ondoren. Beraz, 19 hilabeteko epea ezartzen da guztira.

Obren epea luzatzen bada, automatikoki luzatuko da kontratu honen epea, kontratuaren prezioa aldatu gabe.

## 6. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren gehieneko prezioa 35.700 euro da (BEZik gabe), honela banakatuta:

| Unit. | IZENDAPENA | UNITATEKO PREZIOA BEZik GABE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| 1 | O.P. Obren ingurumen-jarraipena | 28.800,00 | 28.800,00 |
| 2 | O.P. Azken txostena idaztea | 1.200,00 | 1.200,00 |
| | GUZTIRA | | 30.000,00 |
| | *Gastu orokorrak (% 13)* | | *3.900,00* |
| | *Mozkin industriala (% 6)* | | *1.800,00* |
| | GUZTIRA | | 35.700,00 |
| | BEZa % 21 | | 7.497,00 |
| | **GUZTIRA BEZ-A BARNE** | | **43.197,00** |

Kontratuaren prezioa ez da aldatuko kontratuaren epea luzatzen bada.

Kontratuaren prezioan sartzen dira kontratatutako lanak behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren baliabide osagarriak, teknikoak, pertsonalak, garraiokoak eta abar.

## 7. JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA

Banakapena, "Kontratuaren prezioa" 6. atalean aplikatutako obren ingurumen jarraipeneko partida justifikatzeko soilik.

ACTA88e477d7-f656-4eb2-9b8a-05abc89dab46

| LANGILEAK | AURREIKUS DAITEKEEN DEDIKAZIOA | HILABETEAK | UNITATEKO PREZIOA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Ingurumen Zientzietako edo Biologiako Masterraren ziurtagiri akademikoa edo unibertsitateko titulazio baliokideak dituen teknikari bat, obren eta proiektuen ingurumen jarraipenean esperientzia duena. | % 20 | 18 | 7.000,00 | 25.200,00 |
| Hileko txostenak idaztea | | 18 | 200,00 | 3.600,00 |
| GORA JOTZEKO PARTIDA, GUZTIRA | | | | 28.800,00 |

## 8. LANEN ORDAINKETA

Lanak eskema honen arabera ordainduko dira:

- A.P. Obren ingurumen jarraipena: hiru hilean behingo sei ordainketatan ordainduko da, kontratuaren zuzendaritzak emandako ziurtagiriaren bidez. Kontratuaren epea luzatzen bada, ziurtagirien aldizkakotasuna egokituko da, azken ordainketa obren amaierarekin batera egin dadin.

- A.P. Azken txostena idaztea: azken ordainketa batean ordainduko da, azken txostena entregatu ondoren (kontratuaren zuzendaritzak emandako azken ziurtagiria).



EKS | CSV: **ACTA88e477d7-f656-4eb2-9b8a-05abc89dab46**
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| Titulua / Título: | Pliego euskera.pdf |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
POZAS ZUBIZARRETA, German - OBREN ETA PROIEKTUEN ZUZENDARITZA ETA KONTROLEKO ATALBURUA / JEFE DE SECCIÓN DE DIRECCIÓN Y CONTROL DE OBRAS Y PROYECTOS
Data / Fecha: 2025/04/01 12:48:53

**Digitalki sinatua** / Firmado digitalmente por:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**MAGUREGUI ARREGUI, Jesús**

**Bide Azpiegituren Plangintza, Ustiaketa, Proiektu eta Eraikuntzako zerbitzuburua**
Jefe de Servicio de Planificación, Explotación, Proyectos y Construcción de Infraestructuras Viarias

**Data** / Fecha: 2025/04/01 13:19:44